



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 4a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foru-komunitatean enpresen eta zerbitzuen zirkulazio askea lagunduko duen lege bat abian jar dezan. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- 11-25/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere. Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00011. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00012. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeko egutegia. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00363. Galdera, Baso- eta ingurumen-eragileei buruzko oinarrizko Lege berriari buruzkoa. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/ELCO-00001. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkokoak hautatzea. Hautagaiak aldarrikatzea (8. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Foru-komunitatean enpresen eta zerbitzuen zirkulazio askea lagunduko duen lege bat abian jar dezan

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Foru-komunitatean enpresen eta zerbitzuen zirkulazio askea lagunduko duen lege bat abian jar dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Inbertsioa sustatzea eta enplegua sortzea aurre egin beharreko bi erronka handi dira lehiakor izan nahi duen ekonomia ororentzat. Nafarroak komunitate erakargarria izan nahi badu enpresentzat, ezinbestekoa da gure merkatua liberalizatuko duten eta gure komunitatea inbertitzeko optimoa izatea lortuko duten neurriak sustatzea.

Duela denbora batetik hona, Espainiako beste leku batzuetako enpresen erakartzerako, finkatzerako eta aurrerabiderako pizgarriak kentzen dituen

eredu ekonomiko bat hartu du Nafarroak; horrek desinbertsiorako eta lehiakortasun-galerarako deriba bat ekarri du, eta hori oso kaltegarria da Nafarroako Foru Komunitatearentzat.

Horregatik, araudiak ezarri behar dira herrialde osoko enpresei ahalbidetzeko gure komunitatean ezartzea, baimen gehigarririk eskatu gabe beren jatorri-eskualdeetan dituztenez gain. Legez Espainiako beste edozein lekutan finkatuta dauden enpresek modua izan behar dute beren operazioak Nafarroara transferitzeko edo hedatzeko automatikoki eta arauzko oztoporik gabe. Eta berdin izan behar du produktuekin ere: libreki zirkulatzeko modua izan behar dute, aparteko lizentzia-eskariei aurre egin izan beharrik gabe.

Nazioarteko zenbait erakundek, hala nola Europako Batzordeak eta Nazioarteko Diru Funtsak, eta erakunde nazional batzuek, hala nola Espainiako Bankuak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta Merkatuen Batzorde Nazionalak, behin baino gehiagotan ohartarazi dute merkatuak zati-katzeak eragin kaltegarria duena nazioen ekonomian.

Esparru ekonomiko nazionalaren batasuna eta irekitzea sustatzeko neurri horiek jada ezarri dira Espainiako beste eskualde batzuetan, eta eskualde horietan ikusi dute ondasun eta zerbitzuen zirkulazio askeak oparotasuna, BPGren hazkundera eta enplegua dakartzala, eta enpresak eta inbertsioak erakartzen dituela. Hortaz, behar-beharrezkoa da Nafarroa eredu horiek ezartzen hastea, bere testuingurura egokituta.

Nafarroako ekonomiak arrakasta izate eta lanpostuak sortze aldera, beharrezkotzat jotzen da sinplifikatze administratiborako neurriak eztabaidatzea eta ezartzea, modua emanen dietenak beste eskualde batzuetako enpresei Nafarroan finkatzeko, legearen esparruan beren jatorri-eskualdean

betetzen dituzten eskakizunez gain beste eskakizunik bete beharrik izan gabe.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau erabakitzen du:

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean enpresen eta zerbitzuen zirkulazio askea lagunduko duen lege bat abian jar dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Eleduna: Javier García Jiménez

11-25/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean egin dadila mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

XX. mendearen hasieran, emakumeen bizi-itxaropena, Europan, 59 urte ingurukoa zen, eta menopausiara iristeko batez besteko adina, 51 urte ingurukoa. 120 urte baino gehiago igaro diren honetan, azken datu hori ez da aldatu, emakumeak menopausiara iristeko batez besteko adina 51 urtekoa da, baina bizi-itxaropena, berriz, bai, aldatu da: gaur egun, 86 urte ingurukoa da (85,8koa zehazki, NASTATen arabera).

Hau da, gaur egun, emakumeek beren bizitzaren ia herena igarotzen dute klimaterio, menopausia eta menopausiaoste etapetan. Prozesu hori oso nekagarria da fisikoki zein mentalki, eta askotan, faseok dakartzaten ondorio fisikoei eta emakumeen ongizaterako eta autonomiarako dakartzaten bizi-aukerei buruzko informazio eskasegiarekin bizitzen dira.

Datu ofizialen arabera, 7 milioitik gora emakumeek bizi dute menopausia Espainian, eta 2,6 milioi emakume espainiarrek harekin lotutako sintoma negatiboak pairatzen dituzte. NASTATen arabera, Nafarroan, 45 urtetik gorako 176.644 emakume daude (45 eta 70 urte bitarteko 119.605 emakume); beraz, klimaterioko uneren batean daude.

Baldintzatzaile biologiko bat da, ikuspegi feminista batetik landu behar denak, emakumeek etapa hori nola biziko duten baldintzatzen duten beste baldintzatzaile batzuk ere badaudelako; izan ere, baldintzatzaile fisiko negatiboak (beroaldiak, insomnia...) murrizteko moduak ezagutzeko eta horiei buruzko erabaki informatuak hartzeko modua emateaz gainera, autonomia- eta ahalduzko-etapa bat ere ekartzen ahal du, baina ez osasun-sektoreak, ez politikoak, ez lan-eskubideek ez dute arretarik jarri baldintzatzaile horretan.

Hori dela eta, honako erabaki proposamen hauek aurkezten ditugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlanak egin ditzan eta jar-

duera-protokolo bat landu dezan, bermatze aldera klimaterioaren eta horren barruan menopausiaren lanketa eta arreta egokiak, sintomatologiak osasunerako ekartzen ahal dituen efektuak minimizatze-ari eta klimaterioa osasun-ikuspegi integral batetik tratatzen dela bermatzeari begira.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte osoari zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina instituzional bat abiaraz dezan, klimaterioa eta menopausia ezagutzera emateko eta naturalizatzeko, eta prozesu horien inguruan dauden sinesmenak, mitoak, aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazte aldera.

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du menopausiarekin eta klimaterioarekin lotutako osasun-produktuen BEZa murrizteko aukera azter dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/MOC-00011. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du 2025eko otsailaren 6ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordeak egingen du.

Azken hilabete hauetan, Nafarroako Gobernuak Nafarroa Marka aurkeztu du. Hainbat eragileren hilabetetako lanaren, lankidetzaren eta parte-hartzearen emaitza izan da, eta bertan landu da nola proiektatu Nafarroako herritarren nortasuna eta ahotsa etorkizunerantz, nor garen eta besteek nola ikustea nahi dugun aztertzeko begirada analitiko eta sortzailea, Gauzak egiteko dugun modua ikus dezaten.

Nafarroa Markarako, Gobernuak honako jarduketa-ildo hauek ezarri ditu:

- Lurralde-nortasuna
- Talentua, enpresa eta berrikuntza
- Turismoa, aberastasuna eta aniztasuna
- Bizi-kalitatea

Bat egiten dugu jarduketa-ildo horietan jasotzen diren zenbait baieztapenekin:

– Foru-komunitatea bere ondareak markatzen du. Zehazki, urte askoan zehar bere burua gobernatu izateak, euskarak eta parte hartzeko eta boluntariotzarako bokazioak.

– Nafarroa herrialde berritzailea da. Aintzat hartuta dituen unibertitate eta ikerketa-zentroak, hezkuntza-sistema, enpresa-sarea eta ekintzailetzaren alde egiten duen apustua.

– Nafarroak natura-ingurune paregabea du eta turismo jasangarria sustatzen du. Aberatsa da, halaber, lanbide- eta kirol-ekitaldietan eta lankidetzako publiko-pribatuko kultura-proiektuetan.

– Nafarroak berdintasuna eta hurbiltasuna ditu ezaugarri, bai eta gizarte- eta lurralde-kohesioa ere. Nafarroa liderra da bizi-kalitatearen indizeetan.

Nafarroa Markaren ezarpenaren lehen ekintzeta-ko bat Nafarroa Markaren Mahaia sortzea izan da. Helburua da marka eta haren hedapena indartzea, analisi eta hausnarketa partekatu eta parte-hartzailerik ahalbidetzea, Nafarroa Marka gure autogobernua hobetzeko eta lurraldearen lehiakortasuna areagotzeko etorkizuneko tresna moduan hartuta, proiektu instituzional eta zibikotik.

Nafarroa Markak berak Nafarroaren irudia kanpoan bultzatu eta sustatu nahi duten herritarren eta profesionalen esku jarri du zenbait baliabide erabiltzeko aukera ('Navarra-Nafarroa' tipografia, logotipoak, Nafarroako Ereserkia...). Baliabide horiek bere webgunean daude erabilgarri.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak zaindu beharko du departamentu desberdinek Navarra-Nafarroa Marka modu bateratu eta zeharkakoan proiektatzen dutela, beren ekintza eta politiketan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Navarra-Nafarroa Marka sardezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

11-25/MOC-00012. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeke egutegia

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeke egutegia.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteke epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, Nafarroako Gobernuak Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeke egutegia.

Abiadura Handiko Trena salgaien nahiz pertsonen garraio-komunikazioak hobetzen laguntzen duen azpiegitura bat da: garapen ekonomiko handiagoa ematen dio azpiegitura hori duenari, lurraldea egituratzen du eta modernitate-irudi bat nahiz kanpora begirako irudi bat ematen du.

Nafarroarentzat, Abiadura Handiko Trenak izan behar du –eta izan hala da– Europan zeharreko oinarritzko sare bat, Europak aitortu eta saritua, Frantziatik eta, horrenbestez, Europako gainontzeko trenbide-komunikazioetatik hurbil egoteagatik; hortaz, lehenetsi beharrekoa da, Espainiako beste batzuen aldean.

Aldirietako nahiz hurbileko trenbide-komunikazioek pertsonen eta salgaien mugikortasuna hobetzen laguntzen dute; horrenbestez, Nafarroan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta Nafarroan kokatuta dauden enpresen tokiko ekonomia hobetzen laguntzen dute; hartara, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak sarerik onena eta modernoena izateaz eta hori lehenbailehen gauzatzeaz arduratu dadin.

Era berean, ezinbestekoa da abiadura handiko trenaren Nafarroako tartea azkartzeko beharrezkoa den proiektua premia-zehaztea.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Gobernuak premia-tzen da 2025eko lehen seihilekoan Estatutik lor dezan Nafarroako Abiadura Handiko Korridorearen Zaragozatik Castellonerako tartearen eta Iruñerriko tartearen informazio-azterlanak onestea eta horiek eraikitzeke proiektuak lizita daitezen, Arrizabalagako tarteari eta Iruñeko geltoki berriari lehentasuna emanda.

2. Nafarroako Gobernuak premia-tzen da Estatutik lor dezan berehala –2025eko lehen seihilekoan– argitaratzea trena Tuteratik iragaten den tartarako alternatiben informazio-azterlan berria, zeinak ezinbestean jaso beharko duen AHTaren trenbide berrien eta Renferen trenbide guztien trazaduraren alternatiba, ospitale ondoan eginen den Tuterako eskualdeko geltoki bakarrarekin batera.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00363. Galdera, Baso- eta ingurumen-eragileei buruzko oinarritzko Lege berriari buruzkoa

LANDA GARAPENENKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Baso- eta ingurumen-eragileei buruzko oinarritzko Lege berriari buruzkoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko

kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2024ko azaroaren 6ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-25/ELCO-00001. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parla-
mentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkoak
hautatzea**

HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkoak hautatzeko arauekin bat, zeinak Mahaiak 2025eko urtarrilaren 20ko Erabakiaren bidez onetsi baitzituen (5. NPAO, 25-01-24koa), honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkoak izendatzeko hautagai gisa honako pertsona hauek aldarrikatzea:

– Ander Larunbe Anderson jauna eta Arantza Izurdiaga Osinaga andrea, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Alicia Alemán Arrastio andrea eta Mikel Asiain Torres jauna, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias